

Drogak eta komunikabideak. Fenomenoaren eguneroko eszenifikazioa eta irudikapen soziala

Angel Rekalde

Informazio Zientzietan doktorea

Drogen arloan, arriskuak eta kalteak murriztearen paradigmak galderak eta inkoherentzia-elementuak ekarri ditu administrazio publikoaren jardunbidean, eta halaber lanean ari diren gizarte-eragileei: osasun-arloko langile, polizia, gizarte-laguntzaile eta, bereziki, kazetari eta komunikabideetako langileei.

Drogei buruzko eztabaida fenomenoaren pixkanakako normalizazioantzez lerratzen ari da, satanizazioa gaintitze aldera. Komunikabideek kontzienteki edo inkontzienteki, eraikitze sozialaren prozesuak gauzatzen dituzte, jendearen pertzeptzioan eragina duten kontzeptuak objektibatuz, estereotipoak ezarriz eta irudikapen sozialak sortuz.

Within the field of drug dependency, the paradigm of reducing risks and damage is giving rise to certain question marks and inconsistent aspects in terms of intervention on the part of public administration, in addition to agents who are working on the problem: health workers, police, welfare and health care professionals and, in particular, journalists and the social media.

The debate about drugs is geared towards the steady normalization of the phenomenon which enables its demonizing to be overcome. The social media, whether consciously or unconsciously, materialize processes of social construction in terms of objectification, of stereotypes and social representation, which influence the population's perception.

Sarrera

Drogen irudiak, normalean, delinkuentzia-egoerak, bazterkeria, osasunaren degradazioa edo are heriotzaren irudiak ekartzen dizkigu. Berez, batzuetan egiazko egoerak izaten dira gainera. Beste batzuetan, ez horrenbeste. Baina gizarteak, deribazioz, mesfidantzaz ikusten ditu prebentziora eta laguntzara bideratutako lanak, nahiz eta lan horiek, jatorriz drogak kontsumitzen dituzten pertsonengana zuzenduta ere, populazio osoaren onerako izan. Aurreiritziz eta beldurrez betetako ikuspegi horrek arbuioa, zalantza edo, gutxienez, distantzia sortzen du.

Aitortu beharra daukagu irudikapen sozial hori, neurri handi batean, fenomenoak komunikabideetan jasotzen duen tratamenduak eragindakoa dela. «Gaur egun inork ez du zalantzan jartzen drogen irudi soziala komunikabideetan agertzen diren moduek erabat baldintzatuta dagoela»¹. Informazioaren profesionalak ongi dakitenez, komunikazioa, irudia eta errealitatearen eraikitze birtuala nagusi diren garai honetan, komunikabideek errealitateak berak baino garrantzi handiagoa hartzen dute, eta edukien irudikapenek edukiek berek baino pisu handiagoa daukate². Hori horrela, kazetariak, irudikapen sozial horiek eraikitzaileak eta transmititzaileak diren aldetik, bitartekari huts baino gehiago, informazioen gaia diren prozesuen benetako eragileak dira.

Izan ere, berez, komunikabideak eragile aktiboak dira jende-taldeengan eragina duten fenomenoen irudi soziala definitzeko garaian. Definizio hori ez da sortzen gertakariak egunkarietan mimetikoki birsortuz, baizik eta errealitateari zentzu bat emanez eta hura eraikiz, Berger-ek eta Luckmann-ek deskribatzen dutenaren ildotik³.

Hausnarketa honen xedea ez da kazetariak eta komunikazioaren profesionalak errudun bihurtzea, egoera honen erantzukizuna haiena bailitzan. Kazetaritzaren diskurtsoa hainbat prozesu, kausa, eragile eta zirkunstantziaren arabera eraiki da. Baina berriro aztertu egin behar da, eta guztion bizikidetzan sor ditzakeen ondorio nahasgarriak zuzendu egin behar dira.

Azterlan honetan ikus daitekeenez, komunikabideetan zabaltzen den drogen erabiltzaileen irudia legea urratzen duten gaizkileen eta pertsona gaixoen arteko erdibidean dago: atxiloketa eta droga-harrapaketen berriak, delitu, tratamendu, gaixotasun (hepatitisa, hiesa...), gaindosiak eragindako heriotza, etab.ei buruzko izenburuak... Amando Vega-rekin batera, hauxe pentsa dezakegu: «gizartearen-tzat ez da hain traumatikoa, eta estetikoagoa da, 'gaixotasun fisikoa' edo 'delitua' erakustea 'droga/gorputzaren' anatomiaren 'gaixotasun soziala' (eraikuntza sozio-politikoa) erakustea baino»⁴.

1. Berrio, Juan Luis, *Medios de Comunicación y drogas*, Auzo Elkarte. *Cambios sociales y legales ante el tercer milenio*, Dikynson, Madril, 2000.

2. Schneider, Hans Joachim, *La criminalidad en los medios de comunicación de masas*, Cuadernos de Política Criminal, 36. zk., Edersa, Madril, 737. or.

3. Berger eta Luckmann, *La construcción social de la realidad*, Amorrortu, Buenos Aires, 1993, 139. or.

4. Amando Vega, *¿Los medios de comunicación educan sobre las drogas?* Comunicar, 6. zk., 1996.

Nori interesatzen zaio hain irudikapen sozial problematikoa zabaltzea? Oriol Romaní antropologoak honako hau dio: «oraintsuko Espainiako gizartean 'drogak' dituen oinarriko esanahi batzuk ulertzen laguntzeko, aztergaietako bat diskurtso horiek sektore batzuen birsortze- eta zabaltze-estrategia korporatiboen osagai direla pentsatzea da; izan ere, beren nagusitasuna ezartzen saiatzen dira, eta arazoaren beren formulazioa Estatuak beregana dezan ahalegintzen dira»⁵.

Hori horrela, Amando Vega-k, berriro ere, honako ñabardura egiten digu: «albistea errealitatearen eraikuntza soziala da, non boterearentzat interesgarriak diren alderdiak balioesten baitira»⁶.

Ikuspegi horretatik uler diezaiokegu Romaní-ri, diskurtso hori kontrol sozialaren prozesuetan kokatzen duenean: «Drogaren arazoa delakoa, formulatu den bezala, beldur eta antsietate horiek guztiak biltzen ditu zeinak, berez, ezezaguna ('kanpoko'), kontrolaezina eta 'arrotza' denarekiko beldurra baitu ardatz. Hori horrela, joera estruktural baten aldaera zehatza da, historikoki koiunturala, beste hainbat adierazpide dituen, hala nola zenbait tabu sexual, xenofobia eta arrazakeria. Laburbilduz, 'drogaren arazoa' eraikuntza sozialak beste 'errudun' bat sortu du, beste hainbat 'gaizto' —hereseak, juduak, sorginak, behartsuak, eroak, legendunak, beltzak, mairuak, atzelariak, hiesdunak, drogazaleak, terroristak, etab.— bezalatsukoa, 'zintzoei' beren jokabidearen eta egoeraren zuzentasuna (hain zaila lortzen!) berresten dietenen antzekoa; fenomeno horrek subjektuari izan zitzakeen zalantzak gainditzen laguntzen dio, eta ordena sozial jakin bat justifikatzeko eta indartzeko argudioak ematen dizkio»⁷.

1. Paradigmaren aldaketa

Azken urteotan kontsumoaren eta drogamenpekotasunaren arazoa planteatzeko moduan aurrerapen nabarmenak egin badira ere, komunikabideek ez dute funtsean aldatu gaia jorratzeko duten ikuspegia.

Hau da, komunikabideetan, ez da bilakaerarik izan anartean aldatu egin den fenomenoaren tratamenduaren ohiko eskemetan. Gaurko politikak eta programak biltzen dituen berrazterketa publiko hori egin gabe, eta fenomenoaren ulertzeko paradigma aldatzea dakarren kalteen eta arriskuen murrizketaren kontzepturik gabe, kazetariak nahasketa sor dezake. Bitartean, iritzi publikoak bere bertsioa eratzen du gaiari buruz, zabaltzen diren kontzeptuak eta irudikapenak, horiei lotutako balioak edo aurreiritziz betetako eta zaharkitutako ezaupideak oinarritzat hartuta.

1.1. Fenomenoaren bilakaera

70eko hamarkadaren bukaeran, fenomenoari heltzeko formula ofiziala asistentzia-zentroetako tratamenduen (osasun mentalaren ikuspegia eta 'benefizentziaren' planteamendua zuena) eta Arriskugarritasun Sozialaren Legeak (Ley de Peligrosidad Social delakoak) eskaintzen zuen paradigmaren (droga-kontsumitzaileak alfer eta gaizkiletzat hartzen zituena) artean banatzen zen.

5. Oriol Romaní, *Información sobre drogas: acciones, valores, orientaciones*. Seminario Internacional sobre Toxicomanías, Rio de Janeiroko konferentzia, 2000.

6. Amando Vega, op. cit.

7. Oriol Romaní, op.cit.

Beranduago, 80ko hamarkadaren hasieran, ondorengo etapa batean, HIESaren lehen kasuak agertu ziren, eta sortu ziren arazoek planteamendu berriak egitera eta jarrera aldatzera behartu zuten. Arriskuak murrizteko ('the harm reduction') lehen ekimenak Liverpool-eko Nazioarteko Konferentzian hartu ziren, 1986 urtean. Hala ere, hastapen hark haustura ekarri zuen jatorri anglosaxoiko eta Erdialdeko Europako diskurtsoen eta Mediterraneoko herrialdeen diskurtsoen artean, azken horiek "zero tolerantziaren" paradigma baitzuten ardatz, abstinentzia eta drogen erabilera debekatzea zekartzana.

Garai hartan, esate baterako, Espainiako legeriak harreman indibidualak soilik aurreikusten zuen substantzieikiko. Hau da, kontsumoa bakarkako gauza balitz bezala ikusten zituen, ondorio sozialak kontuan hartu gabe. Arazoa alderdi psikologiko eta biologikoetara mugatzen zen, eta osasun- eta laguntza-zerbitzuen helburu profesionalak drogarik gabeko programetan oinarritzen ziren: erabateko abstinentzia, kontsumoa uztea, errepresioa prozedura gisa, etab. Hau da, eska-riaren kontrola zen helburua, tratamenduaren aurretik.

Drogen kontsumoa besterik gabe debekatuz arazoa ez dela konpontzen egiaz-tatzearekin hirugarren etapa bati ekin zitzaion, 90eko hamarkadan. HIESa zabaldu zen, hepatitis... Drogen erabiltzaile jakin batzuek tratamendua behar dutela onartu zen, edo kontsumitzaileak badaudela, besterik gabe, abstinentzia xedea edo nahia izan gabe. Lehen PMMak agertu ziren (metadonaz mantentzeko programak), eta droga-kontsumoarekin lotutako gaixotasunetarako lehen osasun-zentroak.

Pat O'Hara-ren arabera, «arriskuen murrizketa drogen erabilerearen ondorio laz-garriak murriztea helburu duten politiken eta ekintzen multzoa da, drogen erabilera nahitaez murriztu gabe. Drogen erabilerearen eta drogaren aurkako borrokaren ondorio txarrak murriztea da eta, batez ere, kontsumitzaileari utzi ezin dioten edo utzi nahi ez duten eta, beraz, abstinentzia helburu duten tratamenduetan sartzen ez diren droga-erabiltzaileez arduratzea»⁸.

Laburbilduz, drogaren fenomenoan, lan-paradigma hastapeneko helburuetatik, eredu tradizionalen erabateko abstinentziara eta 'zero tolerantzia'ra bideratuta, kalteak murrizteko eta erabiltzaileak zerbitzu sozio-sanitarioetara erakartzeko helburuetara aldatu da. Eredu tradizionalaren azken helburua, erabateko abstinentzia eta betikoa, kalteak murriztea eta bizi-kalitatea hobetzea bilakatu da. Eredu tradizionalen, oso helburu handinahiak zeuden; kalteak murriztean, eskakizun txikitik balizko aldaketaraino doan eskala daukagu.

2. Edukien analisisa

2.1. Landa-azterketa

Azterlan honetan, idatzizko komunikabideak hartu dira lagintzat. «Gure ezau-pide sozial eta politiko gehienak, eta munduari buruz ditugun uste gehienak ere, egunero irakurtzen edo entzuten ditugun informazioetatik jasotzen ditugu. Oso

8. Pat O'Hara, *Harm Reduction-i buruzko nazioarteko konferentzia*, Melbourne, 1994.

litekeena da, eguneroko elkarrizketez gain, prentsako eta telebistako berriek bezain jarraipen ohiko eta zabala duen praktika diskurtsiborik ez izatea»⁹.

Jakina, azterketa oso batek ikus-entzunezkoak, irratia eta telebista jaso behar-ko lituzke, eta are zinea bezalako komunikabideak ere, eta Internet, noski. Hala ere, ikerketa hau prentsa idatzian oinarritzen da, oraindik ere erreferentzia bat baita jendearentzat nahiz agintari eta instituzioentzat, prentsaren bitartez agertzen baitira jendaurrean eta hor bilatzen baitituzte herritarren iritzia eta kezka.

Farré-k dioenez, «prentsa aztertzeak, beraz, ekin politikoaren irudikapen publikoan murgiltzea esan nahi du, hain zuzen ere (...) Era berean, prentsaren azterketak gaiak eta polemikak garbiago jarraitzeko aukera ematen du, adibidez telebistako berriek baino, hor adierazpenak eta eztabaidak gutxitan agertzen baitira behin eta berriro»¹⁰.

Farré-ren arabera, gaur komunikabideek elkarri jarraitzen diote, eta telebistan agertzen dena egunkarietan ere agertzen da paraleloki. Sektorearen funtzionamenduari egiten zaion kritika hori ikerketa errazten duen datua da ere, alderdi bat komunikazioak bere osotasunean duen lagin edo adierazpentzat hartuz. Farré-k aipatzen duen agenda tematikoa (*Agenda Setting*), gaurkoz, hainbat komunikabideren elementu komuna da, eta desberdinak prozedurak, euskarriak eta helburu duten merkatu-segmentua dira, baina berriak, *grosso modo*, denen artean konpartitzen eta tratatzen dira.

Laburbilduz, prentsa errealtate sozialaren erakusleia da, eta analisisia eta ikerketa egiteko arlo bereziki emankorra, erraz ulertzeko, objektibatzeke eta erabiltzeko euskarri fisikoa baita irakurlearentzat, eztabaida dagoenean berriro irakurri edo aztertzeke aukera ematen baitio.

2.2. Metodologia

Azterlanaren abiapuntua drogei buruz 2002ko urtarrilean, otsailean eta martxoan agertutako informazioen eta artikuluen multzoa da.

Erabilitako metodologia, orokorrean, analisi-parrila egitean oinarritu da, drogen fenomenoari dagozkion informazio-unitateei aplikatzeko. Datuak sistematizatzeko eta kuantifikatzeko aukera ematen duen sailkapen-prozedura honek bi behaketa-eta inbentario-prozedura ahalbidetzen ditu, bata kuantitatiboa eta bestea kualitatiboa. Kuantitatiboak gaiari ematen zaion garrantzia neurtzen du, hainbat kategoriaren bitartez, hala nola maiztasuna, posizioa, hedadura, tamaina tipografikoa (izenburuak) eta ikonikoa (argazkiak, infografia...). Bide batez, Krippendorfen¹¹-en arabera, testuen edukiak kuantifikatu egiten ditu, horiek gai-multzotan, antzeko multzo tematikoetan edo paraleloetan bateratuz. Metodo kualitatiboak, van Dijk-en¹² errefortzu metodologikoaz, mezua aztertzen du nagusiki, eta testuen

9. Teun van Dijk, *Racismo y análisis crítico de los medios*, Piados, Bartzelona 1987, 30. or.

10. Jordi Farré, *Esfera pública, comunicación política y prensa diaria. La escenificación periodística de la campaña de las elecciones al Parlamento*, 6. or.

11. Krippendorfen, Klaus, *Metodología de análisis de contenido. Teoría y práctica*. Piados Comunicación. Bartzelona, 1990.

12. Teun van Dijk, op.cit.

zentzua, izenburuak, adjektibazioa, elementu semantikoak, iturburuen erabilera, informazioetako protagonisten deskribapena, gertakariak eta kazetariak informazioei emandako ikuspegi estrategikoa eta antzekoak jasotzen ditu.

2.3. Laginaren deskribapena

Ikerketa bederatzi egunkaritan oinarritu da, egunkari irakurrietan eta euskal gizartean gehien banatzen direnetan, alegia. Horietako bi estatu-mailakoak dira, eta gainerakoak euskal lurraldean dute lan-eremua: Deia, Diario de Navarra, Diario de Noticias, Diario Vasco, Egunkaria, El Correo, El Mundo, El País, Gara.

Egunkari horiek euskal lurraldean hedadura zabala izateagatik aukeratu ditugu eta, aldi berean, estatuko esparruan nolabaiteko erreferentzia izateagatik. Euskal iritzi publikoaren hainbat sektoreren lagin generikoa eta askotarikoa dira. Egunkari garrantzitsuak, egonkorak, prestigiodunak dira eta, hala izanik, idatzizko eta ikus-entzunezko kazetaritzaren erreferentzia. Neurri horretan, erreferente gisa jokatzeko dute beren jardunbidean 'iritzi publikoa' kontuan hartu behar duten pertsonaia politiko eta instituzionalentzat, eta iritzi publiko hori egunkari horietan argitaratutakoan bilatzen dute.

Landa-lanak 991 testu jaso ditu urtearen lehen hiru hilabeteetan. Urtarrilean 346 erregistro-unitate bildu ziren eta, eguneko hamar unitatetik gorako batez bestekoaz, hilabeterik oparoena izan zen. Otsailak 314 aipamen jaso zituen, eta martxoak 332.

3. Ondorioak

Azterketa horretatik ondoriozta dezakegunez, substantzia ugari, legez kanpokoak direnez, anomaliaren kutsua dute, eta erraz bilakatzen dira hedabideetako berri, edo berri-sortzaile. Gainera, egozten zaizkien beste ezaugarri batzuk (heriotzarekin lotura izatea, arauak haustea, etab.) direla-eta, gaia lehen mailako kazetaritzako material bihurtzen da.

Hedabideetako mintzagai bihurtzea erraza bada ere, drogei buruz zabaltzen den informazioa anbigua, okerra, azalekoa eta estereotipatua da, eta jendeari iristen zaion irudikapen soziala desitxuratu egiten du.

Izan ere, hedabideek erabiltzen duten informazioaren zati handi bat polizia- edo epaitegi-iturrietatik dator, hau da, debekurantz makurtzen diren eta fenomenoaren errepresioa helburu duten instantzietatik. Iturri horiek informazioen ia %50 osatzen dute. Atxiloketek, erregistroek, konfiskatzeek, esanahi poliziala ematen diote lege-organo horien ikusmiran geratzen denari. Ondorioz, komunikabideek ematen duten irudian, ikuspegi errepresiboa eta eredu poliziala nagusitzen da. Ez dugu ahaztu behar Polizia, jendearentzat, kriminalitatearen adierazlea dela, gizarteak delitua eta delitugilea haiek kontrolatzeko organoaren bitartez ikusten dituen neurrian¹³. Laburbilduz, ez da gauza zirkunstantziala herritar askorentzat arazoaren funtsa honako printzipio honetan jasota egotea: droga legez kanpoko da eta legez kanpoko izatea delitua da.

13. Rekalde, Angel, *Los medios de comunicación social ante el fenómeno de las drogas: un análisis crítico*, Droga-Menpekotasunen Euskal Behatokia, Vitoria-Gasteiz, 2002.

Aipagarria da instituzioen diskurtsoak duen pisua. Izan ere, erakundeak dira nagusiki adierazpen, prentsa-ohar, txosten eta gainerako informazioak ematen dituztenak, eta kazetari gehienek, ohikeria profesionalaren eraginez, sistematikoki hitzez hitz plazaratzen dituzte. Hori da prentsak argitaratzen duen %80. Drogen fenomenoan hain hurbilekoak diren eta gero eta protagonismo handiagoa duten elkarte eta ekimen sozialei komunikabideetan eskaintzen zaien arreta hutsaren hurrengoa da. Albisteetako protagonistak ere ez dira beraiei dagozkien informazioetako subjektu. Inplikaturako subjektuen eta eragile sozialen ahanztura susmagarria da.

Gainerakoan, telebistaren eraginez, prentsak nahita bilatzen du ikus-inpaktua, dramatikoa, ikuskizun gisa.

1. Anlisi honetan definitutako kategoriak edo faktoreak, drogen irudikapen soziala osatzen duten elementuak, honela sailkatzen dira:

- Drogei buruzko informazioa drama gisa eraikitzen da. Drogazalea zirkuntantzia tamalgarri, oinaze, gaixotasun, bazterkeria, gaitzespen eta kontrol polizialera kondenaturik dagoen pertsona da, laburbilduz, arazo pertsonal eta sozial larria duena.
- Hor sartzen da droga-erabiltzaileak daraman zoritxarraren eta gaixotasunaren irudia. Izan ere, kontsumoa bera zorigaitzoko halabehar gisa eta organismoa suntsitzen duen kalte gisa ikusten da eta, bestalde, hondamendia ere bada, hiesa, hepatitis, tuberkulosia dakartzanez eta koma-egoeraraino edo gaindosiak eragindako heriotzaraino ere irits daitekeenez. Horri heltzen dio gizarteak droga-erabiltzaileei ematen dien laguntza-tratamenduak, alegia gizarte- eta osasun-arloko profesionalen artean paradigma nagusia den eredu sanitarioak.
- Bestalde, batik bat toxikomanoa den droga-erabiltzailea karga neketsu gisa ikusten du jendeak; izan ere, kanpoko laguntza behar du sendatzeko, bizirauteko, sendagaiak hartzeko.
- Eta, azkenik, drama horretan, erabiltzaileak gizartearen sektore zabalen arbuioa jasotzen du.

2. Droga-kontsumoa delitutzat hartzen da. Jende askorentzat eta komunikabideentzat, drogak legez kanpo daude. Legez kanpo ez direnak ez dira droga. Horregatik, kontsumoa edo drogekiko harreman oro legearen mugetan ibiltzea da. Horrela, droga-erabiltzailea edo toxikomanoa izatea gaizkilearen zirkuntantzia arrunta da.

3. Berriak kontatzen duen ekintza delituari edo errepresioari dagokion ekintza da nagusiki (prozesu beraren bi alde). Kategoria honetan sustraitzen da eredu poliziala eta judiziala. Logikoa da, Poliziak zabaltzen duen informazio ugaria ikusita; izan ere, prentsa-bulegoak ditu eta, eskaintzen duen materialaren bitartez, drogei buruzko bere kodea ezartzen du.

4. Drogazaleek delitua egiten dutenean edo gaindosiaren eraginez hiltzen direnean soilik agertzen dira subjektu gisa, orduan dira albiste. Ondorioz, presentzia sozial gogor, dramatiko eta kriminalizatura kondenaturik daude.
5. Drogak arriskutsutzat hartzen dira; heriotza-arriskua dakarte, besteenganako bortizkeria, eta droga arriskutsuagoetarako pasabidea izan daitezke. Arriskukate horrek, dramaren irudikapenaren osagai izateaz gain, alarma soziala elikatzen du, komunikabideek berezkoa duten faktorea, alegia.
6. Droga-kontsumoak bazterketa soziala sortzen du; izan ere, arbuioa eragiten du, arriskuarekin (bortizkeriarekin) lotzen da, eta gizarte-pertzepzioan, baztertuen eta zokoratuen irudiarekin identifikatzen da.
7. Drogei buruzko informazioak, behin eta berriro errepikatzen diren gertakarietan oinarrituta (atxiloketak, konfiskatzeak, gaindosiak eragindako heriotzak eta politikontsumoak...) ez du koherentzia handirik eta zalantzakoa da. Sakoneko arazoak azaleko tratamendua jasotzen du. Oinarrizko datua, sakoneko fenomenoari dagokionez, drogen ondorioak orokortzea da: denak dira maila berean kaltegarri. Aitzitik, ulerkortasun handiagor tratatzen dira legezko drogak.
8. Drogen aipamena albistearen gertakari zentrala da. Hori horrela, droga-erabilzaileak, hala den aldetik, beste edozein subjektuk ez bezalako informazio-tratamendua jasotzen du. Datu estruktural hori komunikabideek beraiek sortu dute, eta beren komunikazio-estrategietatik bultzatzen dute. Sentsazionalismoz kutsatuta daude informazio horiek, albistearen muina harrigarria, anomaloa edo problematikoa denak ematen baitu, fenomeno horrekin erraz lotuta. Gainera, alarmismoa baliabide eraginkorra da kazetaritzan, jendearen morbositateak erakartzen duenez. Horrek guztiak, neurri batean, drogen eta bortizkeriaren arteko lotura egin delako funtzionatzen du, bortizkeria albisteetako lehen mailako osagaia baita. Bestalde, zigor-instituzioen informazio-iturriak legitimatuta eta antolatuta daudelako, eta beren arrakasten publizitatea egiten dutelako. Drogei buruzko informazioa nagusiki Poliziari dagokion gaia da, eta horrek informazioa gertakarien kronikaren ereduaren arabera ematen du, hau da, morbosoa, harrigarria eta desberdina denaren zirrara-ahalmena lehenetsiz.
9. Aitzitik, ez dago ia inoiz, berrien laburtasuna kontuan hartuta, testuinguru sozialaren edota kausa sozialen aipamenik: auzo txiroak, langabezia, itxaropenik eza, hezkuntza-gabeziak...
10. Nazioarteko narkotrafikoa botere indartsu gisa ageri da, gizarte aurreratuetan tamalez esku hartzen duen industria multzinazional gisa. Baina botere hori definitzen duenean, prentsak ez du New York-eko luxuzko bulegorik, Suitzako banketxerik edo drogaren dirua garbitzen duen zerga-paradisurik erakusten. Aitzitik, Hirugarren Munduko oihan itxi baten irudia agertzen zaigu. Arriskua besteak dira beti, urrutikoak eta jendearekin zerikusirik gabekoak.

4. Azken hausnarketa

Kalteak eta arriskuak murrizteko politikak ezin dira pertsonekin (drogazaleak edo droga-kontsumitzaile soilak) lan egitera mugatu. Eraginkorrak izateko, haien

testuingurua, zirkunstantziak, ondorio sozialak eta fenomenoaren nolakotasuna hartu behar dituzte kontuan.

Hori horrela, lehen erabaki garrantzitsua gizarte-integrazioaren estrategia lantzea izango da. Subjektu horien ahulezia sozialari eta bazterkeriari aurre egin behar zaio, babes-gabezia horrek ez ditzan bultzatzen, legez kanpo utzitako espazio horretan, negozio zikinak egiten dituztenen interesak eta ekintza mafiosoak.

Laburbilduz, beharizan sozialetara hobeto egokitutako ekintzak sustatzea da aterabidea, debekuaren politikak eragin dituen kalteak (heriotzak, hiesa, bazterkeria, kriminalitatea, zigor-sistema gehiegi kargatzea...) sor ez ditzan.

Horrek esparru juridikoa, politikoa eta instituzionala aldatzea eskatzen du baina, halaber, pentsamolde, irudikapen sozial eta jarrerak aldatzea; hitz batean, gizarteak fenomenoaren ulertzeko duen modua aldatzea.

4.1. Drogak eta komunikabideak

Hori kontuan hartuta, prentsa-azterketa honek osatzen duen koadroa kezka-garria da. Drogen eta droga-erabiltzaileen (drogazaleak izan nahiz noizbehinkako erabiltzaile soilak) irudikapen sozialaren estigma asko birsotzen dira.

Komunikabideen ikuspuntutik, eta gizartean duten eragina kontuan hartuta, etorkizuneko gakoetako bat normalizazioa da: «normalizatu, hau da, fenomenoaren berez dagozkion parametroetan berkitzea»¹⁴. Horrek testuingurua berkitzea eskatzen du, hau da, drogei buruzko informazioa testuingurutik kanpo ez ematea, gertakarien kronika balitz bezala, delinkuentzia, bazterketa, gaixotasun edo heriotzarekin zerikusia duten pertsonaiekin. Alderantziz, herritar gisa duten izaera berreskuratu behar dute, beren eskubideekin, ahots propioa duten pertsona gisa (informazio-iturri gisa, beraiei dagozkien egoeretan).

Neurri zehatz gisa, kazetariak ardura handiz jokatu behar du zehaztasun informatiboa berreskuratzeko garaian: zehaztasuna informazio-iturrietan, boterearen ahotsa, Poliziarena, epaitegiarena edo instituzioarena, hitzez hitz ez hedatzeko, eta indar txikiagoa dutenei, zuzeneko eragina jasotzen dutenei, hitza emateko. Ezinbestekoak dira erabiltzaileak, informazioaren protagonistak, eta gai honetan lan egiten duten gizarte-eragileak, GKEak, gizarte- eta osasun-arloko langileak.

Zorroztasuna eskatu behar da informazioan. Ez dago 'dosirik' neurri gisa. Ezin da 'drogaren' fikzioa erabili erabat desberdinak diren substantziak deskribatzeko. Ezin da legezko substantzia legez kanpo dagoenarekin nahastu; ez dira berdinak ondorioak, ez eta kopuruak edo dosiak, ez eta sortzen dituzten arazoak, ez eta haien arriskuak. Ez dira berdinak erabiltzeko moduak, ez eta bazterketa-ondorio sozialak, ez eta kontsumo jakin batzuek duten zentzu kulturala, ez eta testuinguruak (jaiei dagozkienak, marjinalak, ohiturazkoak, hala nola alkohola edo tabakoa).

Bestalde, Berri-k eskatzen duen 'normalizazioak' fenomenoaren desdramatizazioa eskatzen du. Kontsumo arduragabearen edo desinformatuaren ondorioak hainbes-

14. Berrio, Juan Luis, op. cit.

terainokoak direnean, ezin da tabuan, sentsazionalismoan edo eskandaluan oinarrituta eman informazioa. Kazetaritzako joera horiek arazoa desitxuratzeko eta fenomenora hurbiltzen denaren ezjakintasuna elikatzeko besterik ez dute balio.

Azkenik, dagokien arloan, komunikabideek testuingurua itzuli behar diote fenomenoari, jendeak drogen kontsumoaren alderdi ludikoak edo kaltegarriak dagokien neurrian uler ditzan, eta norberak, jakinaren gainean egonik, erabaki dezan, sata-nizazioa, kriminalizazioa edo berez problematikoak ere diren bestelako ondorioak gaitututa.

Bibliografia

- Agra, C. da (1992): "Mass-Media e droga. Exercicios empírico-teóricos para um programa crítico", *Prevenção de Droga e Média. Conteúdos e Estratégias*, CEE, Lisboa.
- Barata i Villar, F. (1998): "El drama del delito en los mass media", *Delito y Sociedad, Revista de Ciencias Sociales*, 7. urtea, 11-12. zk., Bartzelona.
- Berger, P. eta Luckman, T. (1988): *La construcción social de la realidad*, Herder, Bartzelona,.
- Cloyd, J.W. (1985): *Drogas y control de información*, Tres Tiempos, Buenos Aires.
- Costa, P. O. eta Pérez Tornero, J. M. (1989): "Droga, televisión y sociedad", Monografía 8 de *Comunidad y Drogas*, PNSD, Madril.
- Escohotado, A. (1989): *Historia de las drogas*, Alianza (3 liburuki), Madril.
- García Nebreda *et al.* (1987): "La imagen de la droga en la prensa española", Monografía 2 de *Comunidad y Drogas*, PNSD, Madril.
- González, C. *et al.* (1989): *Repensar las drogas*, Grup IGIA, Bartzelona.
- Imbert, G. (1992): *Los escenarios de la violencia. Conductas anómicadas y orden social en la España actual*, Icaria, Bartzelona.
- Krippendorff, K. (1990): *Metodología de análisis de contenido. teoría y práctica*, Paidós Comunicación, Bartzelona.
- Larrosa, J, eta Pérez de Lara, N. (1997): *Imágenes del otro*, Virus, Bartzelona.
- Linnell, M. -Lifeline- (2000): "Publicaciones sobre reducción de riesgos para usuarios de drogas en Manchester", in M. Díaz eta O. Romaní (arg.) -Grup IGIA- *Contextos, sujetos y drogas. Un manual sobre drogodependencias*, Institut Municipal Salut Pública – F.A.D., Bartzelona, 311-319.
- Margen-Barcelona (1977): *Sobre la delincuencia*, Roselló Impressions, Novalettera, Bartzelona.
- Megías, E. *et al.* (2000): *La percepción social de los problemas de drogas en España*, F.A.D., Madril
- Moreno, A. (1994): *Prensa de successos: Models de marginació i integració social en els processos de mobilitat social*, Análisis, Universidad Autónoma de Bellaterra, 16. zk.
- Pérez Oliva, M. (1987): *Medios de comunicación y prevención de las drogodependencias*. Ajuntament de Barcelona, Comissió Tècnica Consell Seguretat Urbana.
- Rekalde, A. (2001): *El tratamiento mediático del drogodependiente como elemento condicionante de los programas de reducción de daños*, IGIA, Bartzelona.
- Revista Catalana de Seguretat Pública (1997), *Mitjans de comunicació i seguretat pública*, 4. zk., Escola de Policia de Catalunya, Mollet del Vallès.
- Revista hispano-americana *Poder y Control* (1986): Baratta, A., Hulsman, Louk, etab., PPU, 0 zk., Bartzelona.
- Romaní, O. (1999): *Las drogas. Sueños y razones*, Ariel, Bartzelona.

- , (2000): *Información sobre drogas: acciones, valores, orientaciones*, Seminario Internacional sobre Toxicomanías (konferentzia), Río de Janeiro, uztaia.
- Romaní, O. et al. (1989): *Programa de presa de contacte amb drogodependents d'alt risc*. Ajuntament de Barcelona, Institut Municipal de la Salut.
- Romaní, O. eta Comelles, J. M. (1991): "Les contradictions liées a l'usage des psychotropes dans les sociétés contemporaines: automédications et dépendence", *Psychotropes*, VI. liburukia, 3. zk., 39-57.
- Schneider, H. J. (1988): "La criminalidad en los medios de comunicación de masas", *Cuadernos de Política Criminal*, 36. zk., Edersa (Universidad Complutense; Instituto Universitario de Criminología), Madril.
- van Dijk, T. A. (1997): *Racismo y análisis crítico de los medios*, Paidós, Bartzelona.
- Vega, A. (1996): "¿Los medios de comunicación educan sobre drogas?", *Comunicar* 6. zk.
- Villafañé, J.; Bustamante, E. eta Prado, E. (1987): *Fabricar noticias. Las rutinas productivas en radio y televisión*, Mitre Editorial, Bartzelona.
- VV.AA., (1991): "Medios de comunicación, el "problema droga" y la percepción de soluciones", Monografía 14 de *Comunidad y Drogas*, PNSD, Madril.
- Young, J. (1987): "Más allá del paradigma consensual: una crítica al funcionalismo de izquierda en la teoría de las comunicaciones de masas", *Poder y Control*, 1. zk., PPU, Bartzelona, 59-86.
- Yubero, S. eta Larrañaga, E. (1997): "Medios de Comunicación, Estereotipos y Minusvalías", *Bordón*, 49. zk., Sociedad Española de Pedagogía, Madril.